

UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

(2018ko otsailaren 1eko 23. NAOn argitaratua)

1. artikulua. Oinarria eta izaera.

Ordenantza honen xedeko tasak Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 100. artikuluan ezarritakoaren babesean ezartzen dira, hor xedatzen baita toki entitateek, foru lege horretan ezarri bezala, tasak ezartzen ahalko dituztela jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik, baita zerbitzu publikoak emateagatik edo beren eskumeneko jarduerak egiteagatik.

2. artikulua. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitateak honako hauek biltzen ditu: udalaren kirol instalazioetara sartzea, kirol zerbitzu eta instalazioak erabiltzea, eta Erburua Olazti SL udal sozietate publikoak kudeatzen dituen jarduerak egitea.

3. artikulua. Subjektu pasiboak.

Subjektu pasibo zergadunak dira Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 104. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, betiere kirol instalazioak eta igerilekua erabili edo kirol jarduerak egiten badituzte.

4. artikulua. Ordaindu beharra.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak ordaintzeko betebeharra sortzen da Udalak kirol instalazioetara sartzeko emandako txartela edo baimena eskuratzen den unean. Jarduerak egiten badira, ordaintzeko betebeharra sortzen da inskripzio unean.

Ordenantza hau indarrean den bitartean abiarazten bada ordenantzan aurreikusi gabeko instalazio edo jardueraren bat, honetan jasotako tasak aplikatuko dira, analogiaz.

5. artikulua. Tributu-kuotak.

Tasen zenbatekoa ordenantza fiskal honen eranskinean ezartzen da erabilera, zerbitzu edo jarduera bakoitzerako. Halaber, Olaztiko Udaleko osoko bilkurak onetsiko ditu. Une bakoitzean aplikatzen diren zeharkako zergak sartuta daude tarifen barruan.

6. artikulua. Salbuespenak eta hobariak. Arau orokorra.

Eranskineko tarifen gainean, ordenantza fiskal honen 7. eta 8. artikuluetan berariaz ezarritako salbuespen eta hobariak aplikatzen ahalko dira soilik.

7. artikulua. Salbuespenak.

Tarifen gainean, salbuespen hauek aplikatuko dira soilik:

a) Udal honek antolatutako edo babestutako edozein kirol mota bultzatu, sustatu, zabaldu edo praktikatzeko jarduerengatik.

b) Instalazioak alderdi politikoei lagatzeagatik, betiere hauteskunderen araudian ezarri bezala.

8. artikulua. Tarifak.

Kasu hauek ezartzen dira, ordenantzaren eranskinean adierazitako tarifekin:

–3 urte bitartekoek (3 urtekoek barne): ez dute tasarik ordaintzen.

–Haurren tarifa, 4tik 13 urte bitartekoentzat.

–Gazteen tarifa, 14tik 17 urte bitartekoentzat.

–65 urtetik gorakoak.

–%33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiak.

–Taldeen tarifa, antolatuta dauden eta gutxienez 10 kide dituztenentzat.

–Abonatuak ez dituzte ordainduko squash pisten alokairu puntualaren tasak.

–Olaztiko Udalak hitzarmena sinatu badu kirol eta josteta elkarte, teknifikaziorako kirol zentro, ikastetxe, kirol klub ez profesional edo kirol federazio batekin, hitzarmenean ezarritako tasak ordainduko dira. Hitzarmena sinatzeko, nahitaezkoa izanen da eskatzen den instalazioaren erabilerak bat egitea eskatzailearen estatutuetan jasotako xede sozialarekin.

–Salbuespenez, Alkatetzaren ebazpen baten bidez, %100erainoko hobaria aplikatzen ahalko da tasan, egin beharreko jarduera, kirolekoa izan edo ez, ongintza, gizarte edo kulturakoa bada, irabazi-asmorik gabeko fundazio edo elkarte batek antolatzen badu eta interes publikokoa bada.

9. artikulua. Kudeatzeko arauak.

Hasierako matrikularen ordainketa ez da itzuliko abonatuaren baja gauzatzen bada ere.

Hilabetearen 25a baino lehen gauzatzen diren altetan hilabete osoa kobratuko da. Alta 25etik 31ra gauzatzen bada, hurrengo hilabetearen hasiko da kobratzen.

Instalazioaren edozein abonatuak helbidea, bankuko helbideratzea edo beste edozein datu garrantzitsu aldatu duela jakinarazi beharko du.

Baja gauzatzeko, hurrengo ordainagiria pagatzeko egunaren aurreko hilabeteko 25a baino lehen jakinarazi beharko zaio instalazioari. Baja gertatzen bada kobratzeko egunaren ondoren, ez da tasa itzultzeko eskubiderik izanen. Baja burutzeko, idatziz egin beharko da instalazioan. Berriz abonatu nahi dutenek hasierako altaren matrikula ordaindu beharko dute.

Kuotak ordaintzen ez badira, bi aldiz egingen da ordaintzeko errekerimendua, eta haietako bakoitzari dagokion hilabeteko epean abonatuaren erantzunik ez badago, baja

emanen zaio eta abonatuaren eskubideak galduko ditu. Berriz abonatu nahi bada, alta berria izanen da, eta matrikula ordainduko da.

Aurreko paragrafoa aplikaturik abonatuari baja eman ondoren, berriz ere alta hartu nahi bada kuoten ordainketa eguneratu beharko du.

Abonatu karneta galdu, lapurtu edo hondatuz gero, horren berri eman beharko zaio segituan instalazioak kudeatzen dituen entitateari. Beste karnet bat egiteko, eranskinean ezarritako tasa ordaindu beharko da.

Ordaintzeko modua:

Ahal bada, abonatuak banku-helbideratzearen bidez ordainduko ditu kuotak, eta aukeratu beharko du bi ordainketen arteko tartea (hilabete bat, hiru hilabete edo urte bat). Dagokion hilabetearen 1etik 5era egingen dira karguak.

Kiroldegiko jardueren kuotak eskudiruz ordainduko dira, sozietatearen banku-kontuan edo aukeratzen den banku-kontuan egindako kargu baten bidez, hamar eguneko epean jardueraren hasiera egunetik. Ordaindu ezean baja emanen zaio jardueran.

Neguko jardueren tarifak lauhilabeteko ikastaroei dagozkie. Udako jarduerak hilabetekoak dira. Ikastaroa hasi ondoren, ordaindutako kuotak ez dira inola ere itzuliko. Bigarren, hirugarren edo laugarren hilabetetik aurrera inskribatu nahi direnek kuotaren zati proportzionala ordaindu beharko dute.

Udako abonamenduak eskatu baino lehen ordaindu beharko dira, sozietatearen banku-kontuan dirua sartuz. Udako jarduerak berdin ordainduko dira, baina inskripzioa egin ondoren.

Eguneko txartelak, pisten alokairua eta beste kontzeptu batzuk eskudiruz ordainduko dira eskaeraren unean.

Lehen xedapen gehigarria.–Tarifen publizitatea.

Ordenantza fiskal honen eranskineko tarifak ongi ikusteko moduko toki batean jarriko dira kirol instalazio guztietan, erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten.

Bigarren xedapen gehigarria.–Aplikazio osagarria.

Ordenantza honetan ezarrita ez dagoen orotan udal honen ordenantza fiskal orokorrean, Nafarroako Toki Ogasuneko Foru Legean eta, oro har, tasak eta tributuak arautzen dituzten arauetan ezarritakoa aplikatuko da.

Azken xedapen bakarra.–Indarra hartzea.

Ordenantza fiskal honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

TARIFEN ERANSKINA

Hasierako altaren matrikulak.

≤ 3 urte	0
Haurrak (4-13 urte)	14,00
Gazteak (14-17 urte)	21,00
Helduak	28,00
Desgaitasuna dutenak	0
65 urtetik gorakoak	17,00

Abonamenduen tarifak (kiroldegia eta igerilekuak).

	HILABETEAN	HIRUHILEKOAN	URTEAN
≤ 3 urtekoak	0	0	0
Haurrak (≤13 urtekoak) familiako abonamenduan	0	0	0
Haurrak (4-13 urte)	7,5	22,50	82,50
Gazteak (14-17 urte)	11,25	33,75	123,75
Helduak	15,00	45,00	165,00
Desgaitasuna dutenak	7,5	22,50	82,50
65 urtetik gorakoak	7,5	22,50	82,50

Alokairuak (orduko prezioa).

	ABONATUA	ABONATU GABEA
SQUASH PISTA		
Prezioa lagun bakoitzeko	Dohainik	3,00
KIROLDEGIKO PISTA		
Argirik gabe	18,00	27,00
Argiarekin	22,00	33,00
FRONTOIA		
Argirik gabe	7,00	14,00

Argiarekin	9,00	16,00
PADEL PISTA		
Prezioa lagun bakoitzeko	1,00	4,00
Argirako fitxak	2,00	2,00

Eguneko sarrerak (kiroldegia edo igerilekuak).

	LANEGUNA	JAIEGUNA
Helduak	4,00	5,00
≤ 3 urtekoak	0	0
Haurrak (4-13 urte)	2,00	3,00
Gazteak (14-17 urte)	3,00	4,00
Desgaitasuna dutenak	1,50	2,50
65 urtetik gorakoak	2,00	3,00

Neguko jarduerak (lauhilekoak).

	ABONATUA	ABONATU GABEA
Ikastaroak, 2 ordu/astea (indoor ziklismoa izan ezik)	42,00	84,00
IKASTAROAK, 3 ORDU/ASTEAK	59,00	118,00
INDOOR ZIKLISMOA	59,00	118,00

Udako abonamenduak.

	DENBORALDIKOAK	HILABETEKOA	HAMABOSTALDIKOAK
Helduak	47,00	32,00	16,00
≤ 3 urtekoak	0	0	0
Haurrak (4-13 urte):	23,00	16,00	8,00
Gazteak (14-≤ 17 urte)	36,00	24,00	12,00
Desgaitasuna dutenak	23,00	16,00	8,00
65 urtetik gorakoak	23,00	16,00	8,00

Udako jarduerak.

	HILABETEAN
Udako abonatuak	29,00
Urteko abonatuak	21,00
Abonatu gabeak	40,00

Pistak erabiltzeko bonuak.

15 urteko bonuak, urtebetean erabili beharrekoak	
Kiroldegiko pista	238,00
Padel pista	35,00

Igeriketako txanoak: 2 euro.

Bazkide txartela berritzea: 6 euro.

Taldeen tarifa: gutxienez 10 lagun dituzten talde antolatuek %25eko deskontua izanen dute eguneko txartelen prezioan.

Kirol instalazioetako dutzak erabiltzea: 2 euro.